



2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bi bezero mota izango ditugu, alde batetik polikiroldegiak, gure zerbitzua eskainiko diegulako, hauek gure bezero nagusiak izango dira eta beste batetik, bezero normalak, hau da, kirolariak. Kirolaririk gabe polikiroldegia ez luke funtzionatuko beraz, gure proiektua ez zen aurrera joango.

Merkatu segmentazioari dagokionez, gure merkatua oso zabala da gaur egun jende askok kirola egiten duelako baina, gimnasio batera joateko maila ekonomiko bat izan behar dute bezeroak, kuotak ordaindu ahal izateko. Kirolarien taldea ez dauka mugarik baina, gimnasio batera joaten den jendea normalean, 14 urtetik gorako jendea da. Proiektua spinning makinetan inplantatuko dugu hasieran, gero eta ospetsuago bihurtzen ari den kirola egiteko metodo bat delako. Ondo doala ikusten badugu beste makina batzuetan jarriko dugu.

Gimnasioaren bezeroak eta gure bateriak daramaten makinak erabiliko duten pertsonak 14-55 urte artean izango dituzte. Bezeroak ez dira elitezko kirolariak izan behar spinning klasetan parte hartzeko.

